

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Martxel Eguen Belar

*Elorrio, Bizkaia
(1928-2019)*

Aurkibidea



Biografia



Mendraka auzoko Mendrakagoia baserrian jaioa. Sei neba-arrebatatik hirugarrena. Mutiko txikia zela ezagutu zuen gerra, baina oso gogoan ditu orduko oroitzapenak. Ezkondua. Errentadoreak ziren, maizterrak. Baserrian lan asko egin bere denboran, eta fabrian ere bai. Elorrioko Funcor kooperatiba handian ibili zen lanean ia bere sorreratik, itxi zen arte.

Zintak

ELO-021

- **Proiektua:** Elorriko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Data:** 2010-04-28
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Gerra Elorrion

- **Erref:** ELO-021/007
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:08:36. **Bukatu:** 00:11:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Eskolarik gabe egon ziren hiru urtez. Zortzi urte zituen. Besaidetik bonbardatzen zituzten Intxorta eta Elorrio. 30 hildako.

2. Francoren soldaduak etxeko atea jotzen

- **Erref:** ELO-021/008
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:11:05. **Bukatu:** 00:13:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Frankistak Elorrion sartu eta baserriko atea jo ondorengo gorabehera latzak. Txakurrari tiroak, zakarkeria familiarekin. Mutikoak soldaduen artean.

3. Galdaratik artoa eta esnea jaten zuen familia

- **Erref:** ELO-021/011
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:15:37. **Bukatu:** 00:17:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Taloa gustura jaten zuten. Errotik esnea jetzi ahala, bota artoa mehe ebakita eta hainbat familiak galdaratik nola jaten zuten. Orain milionarioak baino hobeto bizi ei gara.</p>

4. Iratan

- **Erref:** ELO-021/013
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:17:48. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Santa Maiña eta Erdella mendietara joaten ziren iratan. Hogeitaka burdikada ekartzen zituen Martxelek. Satsari buelta ematen zitzaion ilberan. Kortako leihoak itxita edukitzen ziren, ganaduentzat haizea txarra zelakoan.

Transkripzioa

-Udazkenian iratan eitten ziñuen?
-F-Baitta, baitta. Hori zetan esan be eztak
-Nora joaten ziñaten idatara? Zela eitten ziñuen?
-M-Irixekin, eta behixak beste pare bat, eta hor Santamaiña, Erdella, Mendisolo... Horraxe mendira. Egunien bieje bi ekarri, da gero lepoka jaso.
-Nora?
-M-Gora. Ta gero artua zurittu, aparte. Da gero porrusaldia.
-Basora iratara zein joaten zan lelengo ebaitzera? Zeuek?
-M-Bai, klaro. Ebai tta preparau ein biher. Batzuetan haxiek erueten zittuen. Da bestiok ba...
-Eta oso urrin zeren ida-sailak ala ez?
- (...) Hortxe...
-Zegatik zan hain inportantia iria?
-Iria? Hogetaka burkarak ekarten giñuzen, hogeta zortzi-beratzi bat burkara. Sabaiok itxi, bete, ta gero metak ein gaiñera.
-Lan gogorra, ezta?
-Satsa eitteko.
-F-Satsa eiñ eta ha gero solora atara-ta. Eneee.
-M-Da ilbarrixe zanien buelta emon satsai, ze-zeia egon daitten.
-Ilbarrixa zanian?

-Ilberan emon buelta. Aaai...
-Kortan emoten jakon?
-Kortan, kortan. Oñ kortan ganauak pe danak-eta; bentanak -zuek "leihua" esaten dotsazue, ezta-, harek pe zerrau, haxeik pe etxakuela komeni behixei tta. Oñ kanpuen txalok eta behixok eta. Edarto.
-F-lpurdiko zulue be garbittu ondo.
-M-Aber zelan dien gauzak.
-Bai, zelan kanbixau dien, ezta.
-M-Dana zerrauta.

5. Felisa auzolanera alarguna zelako

- **Erref:** ELO-021/014
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:20:20. **Bukatu:** 00:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Bidegintza zenean egiten zen auzolana. Udalak zahagi bat ardo ematen zuen. Gizonen lana zen, baina Felisak egin behar izaten zuen alarguna zelako.

Transkripzioa

-Auzolanik eitten zan zuenetan?
-M-Ez, e, holantxe bidegiñen itten zanien, bai. Basora urtien birritan eta hona galtzaria arregletan hau kamiñuau egiñ aurretik. Ta aiuntamentuek emuten eben garrafoe bat ardau. Orduentxe eraten eben hamengo jentiek ardaue gure aiña. Bidegintza egunian.
-Lasuenetan, Lasuenetik ekartzen ziñuen? Lasuenien, San Juen kalien, ha bodegatxua, Lasuenenien.
-Egun ona izango zan haura, ardauakin-eta.
-Bai. Ardaue-edo baltza behintzet. Ardaue... (Barreak).
-Andrak-eta auzolanik-eta ez, ezta?
-Nik bai, ni jueten nintzen, neu joan [bihoten] gurien.
-Alarguna, alargunduta zeunden?
-Ni alargunduta neuen berrogei urte, berrogeta batekin, ez, berrogei. Baiña hiru umegaz. Kalien, kalien, etxie erre xakun. Orduentxe etxie erre xakun, handik sei hillebetera hil zan gizona.
-Etxia erre jatzuen, basarrixa erre jatzuen?
-Bai, Berrixon.

6. Etxea erre izanaren penarik ez

- **Erref:** ELO-021/015
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:21:30. **Bukatu:** 00:22:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Etxea erre zitzaien eta kalera jaitsi zen familiarekin bizitzera. Baina ez du

horren penarik. "Lehenago erre balitz hoba" dio, auzoko bizimodua gatxa zelako.

7. Argiñetako elizpean bazkaltzen

- **Erref:** ELO-021/017
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:23:33. **Bukatu:** 00:24:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Martxeli behin baino gehiagotan familiak erdibidean zegoen Argiñetako elizpera ekartzen zion bazkaria, etxeraino joan beharrik ez izateko.

8. Eskekoak eta paragueroak

- **Erref:** ELO-021/019
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:26:37. **Bukatu:** 00:28:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Eskekoak asko ibiltzen ziren, "Porru" esaten zioten mondrauetar bat du Martxelek gogoa. Paragueroak ere etortzen ziren, ontzi-konpontzaileak. Burlakantu bat kantatu ohi zieten.

9. San Esteban egunez etxea erre

- **Erref:** ELO-021/020
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:28:15. **Bukatu:** 00:29:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

San Estebanak dira Berrioko jaiak, jai inportanteak. San Esteban egunez erre zitzairen baserría. Orduan esandakoak.

10. Argiñetako Kofradia jaiak

- **Erref:** ELO-021/022
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:34:25. **Bukatu:** 00:36:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Abuztuaren 5ean ospatzen zen jaia. Txahala hiltzen zen. Astebete inguru pasatzen zuten atzera eta aurrera. Musika egoten zen. Bazkariarekin etortzen ziren. Jendea asko mozkortzen zen.</p>

Transkripzioa

-Eta hemen Kofradixia edo zeozer bada.

-Bai.

-Kofradixia. Ze historixa da hori? Zeintzuk egoten zien?

-Lehen kofradixia, txala hiltten eben bertan, hamen. Berrogeta hamar bat edo (erralde?), hamen inguruan topau dot nik haundiña. Hamentxe ibilli mozkor-mozkor eindda astebete baten. Batien astelehena dalako, bestien zapatua dalako ta...

-Fel: batien preparetan ta bestien [...].

-Eta zera, agura eta halako gure moduko zarrak eta, bata etzunda egon zala arbolapien, bestie zerien.

-Fel: Txarto, txarto.

-Txarto. Ardaua be bakizu, holakotxen baten, bestelan... Ura, iturrikua, hangua, Mendrakakua.

-Bai, edarra. Ha Reginan terrenuen egongo dok ha, ha bokia han dak, ha labaderua ta?

-Bai. Ura.

-Ixilik egon hadi, ixilik.

-Ta holakotxiek aprobetxetan zarrak.

-Baiña erromeixa eleganten bat be eingo zan.

-Bai, sasafoia ta...

-Zenbat urtian sansafoia ta. Hamen, bueno, jaixak...

-Gero bezkeittan etortzen, eta neu be bai etorritta nak hona, Kofradixako soziua. Maletatxua ta noberen kubiartuak eta noberen basuak hartu ta ta etorri hona ta...

-Neu be ni aittaz mutikua nitzala birrittan edo ta, garbantzuak eta makillaua beratu barik. Gazixaua...! Ta gero ardaua eran mordo bat, ardaua eran eta mozkorra ugeri.

11. "Buzterriginak", bikote bilatzaileak

- **Erref:** ELO-021/023
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:36:05. **Bukatu:** 00:37:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Felisari auzoko batek topatu zion nobioa. "Buzterriginak" deitzen ei zitzaien bitartekari lanak egiten zutenei.

12. Haurdun ezkondu zen Felisa

- **Erref:** ELO-021/025

- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:40:45. **Bukatu:** 00:42:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Denetik zegoen orduan ere nobioen arteko harremanetan. Guztiz aldatu da gizartearen ikuspegia. Haurdun ezkondu zen bera. Ez du ezkutatzeko.</p>

13. Dena pekatu

- **Erref:** ELO-021/027
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:44:10. **Bukatu:** 00:45:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Ezkondu aurreko harremanen kontra berba egiten zieten elizan. Lehenagoko bizimodua. </p>

14. Bodak eta eztei-bidaia

- **Erref:** ELO-021/029
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:45:48. **Bukatu:** 00:48:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Martxelek ez zuen egin eztegurik. Bidaia bai. Felisak, berriz, eztegua eta bidaia. Zirkuloan despedida eta Tanger jatetxean eztegu-bazkaria. Menua esaten digu. Donostiara ezkontza-bidaia.

15. Funcor-eko langile

- **Erref:** ELO-021/030
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:48:18. **Bukatu:** 00:52:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Biek egin zuten lan Funcorren. Ondo hasi zen, baina poliki-poliki okerrera egin zuen. Berari gertatutako pasadizo bat kontatzen du Felisak.

16. Andrak Funcorren

- **Erref:** ELO-021/031
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:52:38. **Bukatu:** 00:53:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Hamalau andrekin egiten zuten lan Funcorren. Lehenengo lau orduetan normal errenditzen ei zuten, baina gero ez.

17. Funcorren gauza onak

- **Erref:** ELO-021/033
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:54:07. **Bukatu:** 00:55:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

827 langile ei zeuden plantilan. Eskolak. Soldadutzara joandakoei soldata. Txirrindulari taldea. Oso pozik dago Felisa lantegiaz, nahiz eta azken txarra izan.

18. Hilario Azkarate pilotaria

- **Erref:** ELO-021/035
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:56:00. **Bukatu:** 00:57:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Urte batzuetan Elorriok fama handia izan zuen bere pilotariengatik. Hilario Azkarate hainbat urtez izan zen txapeldun.

19. Idi-probak eta apustuak

- **Erref:** ELO-021/036
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:57:20. **Bukatu:** 00:59:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>"Matahombres" izeneko zaldibartar baten apustua. Idi-probak bazuten indarra sasoi batean. Pertsona batzuei buruzko komentarioak</p>

20. Pinudiak baino hobe errenta ona

- **Erref:** ELO-021/038
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:00:00. **Bukatu:** 01:01:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Pinuak ez du dirurik egiten gaur egun, eta hobe ei da hori baino pisu bat errentan izatea.

21. Euskara nagusi Elorrion

- **Erref:** ELO-021/039
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:01:00. **Bukatu:** 01:01:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Estudiatzen edo kanpoan egondakoren batek bakarrik egiten zuen erdaraz Elorrion. Besteek euskaraz. Berak apopiloekin ikasi zuen erdaraz.

22. Felisaren bizibideak eta erreteroen gorabeherak

- **Erref:** ELO-021/040
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:01:55. **Bukatu:** 01:03:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

Apopilo-etxea izan zuen. Diru asko egin du, txindurri lanean. Erretereroak ziren. Zenbat ordaintzen zuten

23. Gerrateko kontuak

- **Erref:** ELO-021/042
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:04:06. **Bukatu:** 01:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepublikoa

Laburpena:

Martxel mutikoa zelarik, trintxerak non zeuden erakusteko agindu zieten

"nazionalek". Preso hartu zuten auzotar baten istorioa. Aita Amorebietan preso izan zuten, karlistei eman ei zielako botoa.

Eguen Belar, Martxel | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com